

## Montehermosok proiektu artistikoetarako deialdiaren beste edizio bat deitu du

**Interesdunek apirilaren 1era bitartean bidali ahalko dituzte proposamenak, eta horietatik lau aukeratuko dira kulturunean erakusteko**

Montehermoso Kulturuneak proiektu artistikoen 2019ko deialdirako epea ireki du. Deialdiak lau urte bete ditu eta 24.000 euroko aurrekontua du. Honen bitartez, arte garaikideko hiru proiektu aukeratzen dira, gehienez, eta ikus-entzunezko proiektu bat, Guztiek 6.000 euroko laguntza jasotzen dute. Interesdunek apirilaren 1era arte eman ahal dute izena. Aukeratutako proiektuak hilabetez izango dira ikusgai, 2019ko irailetik 2020 ekainaren bitarteko tartean.

Ekimen horren helburua da arte garaikideko hiru proiekturen eta ikus-entzunezkoen proiektu baten produkzioa erraztea, proiektu horiek zabaltzea, eta bertako eremuko artistak erakustea. Deialdiaren bitartez produkzio aurreko edo produkzio prozesuan dauden proiektuak aukeratzen dira, eta horiek Montehermoson aurkezten dira bertako urteko programazioaren zati gisa.

Hauexek dira aurtengo deialdirako ezarritako ildoak:

- Proiektuak aurkezteko epea 2019ko apirilaren 1ean amaituko da.
- Aurkeztutako proiektuak Montehermoso kulturuneko aretoetan izango dira ikusgai, hilabetez, 2019ko irailetik 2020ko ekainera bitartean.
- Ordainsarien kontzeptua ere barne hartzen du, laguntza guztiaren % 10era bitartekoa, gehienez.
- Proiektu bakoitzerako jarduera osagarrien programa ezartzen da- bisita gidatuak, lantegiak, hitzaldiak...- , publikoarekin harreman zuzena izan dadin.
- Proiektu bakoitzaren katalogoa/argitalpena egingo da.
- 

### Deialdiaren historikoa

2016an, Kultura Sailak bertako artista eta sortzaileei laguntzearen aldeko apustu argia egiten du, deialdiaren kopurua 12.000 eurotik 18.000 eurora igota, eta hortik aurrera, edizioz edizioz handitu egin da kopuru hori 24.000 eurora iritsi arte. Horrek proiektu bakoitzeko 6.000 euroko kopurua bermatzen du, eta proiektuak gauzatzen dituzten pertsonen ordainsaria aitortzea.

Sektorean izan duen harrera onaren isla dira aurkeztutako proiektuen kopurua eta kalitatea handitzea: 2016an 62 proiektu jaso ziren (aurreko edizioen aldean ia % 300 eko igoera), 2017an 82 proiektu eta 2018an, 86.

## **Orain arte aukeratutako proiektuak**

Miriam Isasiren “Doppler Eco Tac”, Edurne Herranen “Futuro perfecto”, Gert Voor In’t Holt-en “Fail again, Fail Better“ ; Belen Cerezoren “ Una película y una historia”;; Anabel Quincoces “Transmutación 11” , Ainhoa Akutainen “lúcu\_lúcu (ver\_mirar)” , Irati Inorizaren “90 sobre la dialéctica de la heroicidad” , Iñaki Graceneraren “Modelo y Practica” eta Jon Gorosperen “Metrópolis” . Azken hirurak datozen hilabeteetan aurkeztuko dira.

## **Aurreko edizioetako hautaketa-batzordeko kideak**

Natxo Rodríguez Arkaute, EHUKo Arte eta Teknologia Saileko irakaslea eta bertako ekintza kulturalaren zuzendaria; Enrique Martínez, Artiumeko bilduma iraunkorra; Juan Zapater , zine-kritikaria eta BilbaoArteko zuzendaria; Marta Monfort, Udalaren Antzoki Sararen arduraduna; Araceli de la Horra, Kultur-Zentroen burua eta Montehermoso kulturuneko arduraduna.

## **Montehermoso saca una nueva edición de la convocatoria de Proyectos Artísticos**

**Las personas interesadas tendrán hasta el 1 de abril para enviar sus propuestas y serán cuatro las seleccionadas para exponerse en el Centro Cultural**

El Centro Cultural Montehermoso abre el plazo de la convocatoria de Proyectos Artísticos 2019. Es el cuarto año que se realiza esta convocatoria, dotada con una cuantía económica de 24.000 euros y mediante la cual se seleccionan un máximo de tres proyectos de arte contemporáneo y un proyecto audiovisual, que tienen asegurado un apoyo económico de 6.000 euros. Las personas interesadas tendrán de plazo hasta el 1 de abril para inscribirse, y los cuatro proyectos seleccionados, se expondrán durante un mes, entre septiembre de 2019 y junio de 2020.

El objetivo de esta iniciativa es facilitar la producción de tres proyectos de arte contemporáneo así como su difusión y exhibición, y un proyecto audiovisual de artistas del contexto local. Mediante la convocatoria se seleccionan proyectos que están en proceso de pre-producción o producción, que se presentan en Montehermoso como parte de su programación anual.

Las líneas establecidas para la convocatoria de este año son:

- El plazo de presentación de proyectos finaliza el 1 de abril de 2019.
- Los proyectos seleccionados se presentarán al público entre septiembre de 2019 y junio de 2020, en los espacios del Centro Cultural Montehermoso.
- Se contempla el concepto de honorarios, hasta un máximo de un 10% del total de la ayuda.
- Se establece un programa de actividades complementarias – visitas guiadas, talleres, conferencias, etc.- de cada proyecto con el fin de establecer un contacto directo con los públicos.
- Se edita un catálogo/publicación de cada proyecto
- 

### **Histórico convocatoria**

En 2016 el Departamento de Cultura hace una apuesta clara por el apoyo a los artistas y creadores del contexto local, reforzando esta convocatoria que pasa de 12.000 euros a 18.000 en esa edición, y en ediciones sucesivas aumenta hasta los 24.000. Esto asegura una cuantía de 6.000 euros por proyecto y el reconocimiento de honorarios a las personas que desarrollan los mismos.

La buena acogida a esta apuesta por parte del sectores refleja en el aumento de la calidad y cantidad de los proyectos presentados: en 2016 se reciben 62 proyectos, lo cual supone un

aumento de casi un 300% respecto a ediciones anteriores, en 2017, 82 proyectos y en 2018 86 proyectos.

### **Proyecto seleccionados hasta ahora**

“Doppler Eco Tac” de Miriam Isasi, “Futuro perfecto” de Edurne Herran, “Fail again, Fail Better“ de Gert Voor In’t Holt, Una película y una historia” de Belén Cerezo, “Transmutación 11” de Anabel Quincoces, “lúcu\_lúcu (ver\_mirar)” Ainhoa Akutain , “90 sobre la dialéctica de la heroicidad” de Iratí Inoriza, “Modelo y Practica” de Iñaki Gracenea y “Metrópolis” de Jon Gorospe. Esto tres últimos se presentarán en los próximos meses.

### **Personas que han formado parte del Comité de selección en anteriores ediciones**

Natxo Rodríguez Arkaute, Profesor del Departamento de Arte y Tecnología y Director de Acción Cultural de la UPV/EHU. Enrique Martínez, Colección permanente de ARTIUM, Juan Zapater Crítico de cine y Director de BilbaoArte, Marta Monfort, Responsable de la Red Municipal de Teatros y Araceli de la Horra, Jefatura de Centros Culturales- Responsable del Centro Cultural Montehermoso.